

8.FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektuak sozialki izango duen eragina kontutan hartuta, gure lehentasuna produktua ondo zabaltzea eta bezero xedeari helduaraztea izango da. Horretarako gure publizitatearen arduradunak lan bikaina egin beharko du eta taldea oso kompetentea izan beharko da.

Ekoizpen jarduerari ere ezin diogu arreta galdu, izan ere, ekoizpen prozesuak zehaztuko du gure produkturen kalitatea eta eraginkortasuna. Hemen, kontratatutako langileak izango ditugu. Jarduera honen barnean, froga-fasea deritzoguna martxan jarriko dugu. Hainbat bolondresekin simulazio bat egingo genuke, non lapurketa bat antzetzuz hiriko zenbait puntuetan. Honekin, hurbileko komisaldegira biktimaren kokalekua eta audioak behar bezala heltzen diren egiaztatuko dugu.

Eraztuna sellokoa izango da, selloko eraztunak plataforma txiki bat du goiko aldean eta hori aprobetxatuz nano gps bat eta mikrofonoa ipiniko genuke, horri konektatuta etengailu bat egongo zen kanpoaldean eta etengailu hori pultsatzean, nano mikrofono bat aktibatuko zen plataformaren kontrako aldean eta GPSak denbora errealean helbidea bidaliko luke, mikrofonoak hartzen duen soiunuekin batera, poliziarengana, hurbilen dagoen komisaldegira.

Bukatzeko, web orrialde bat izango dugunez, bere kudeaketa jarduerak ere egingo ditugu: www.ctrlcreate.org da helbidea. Bertan, SecuRingren informazioa eta modeloak, funtzionamendua eta erosleek utzitako komentarioak ikusgai egongo dira, bezeroaren arretarako telefono zenbaki batekin batera. Horrela, bezeroei eraztuna galdu edo apurtzen bazaie, tekniko batekin harremanetan jartzeko aukera izango lukete arazo hori lehenbailen konpontzeko. Web orrialdearen bidez, eraztuna online erosteko aukera egongo da, beraz, biltegiaren kudeaketa on bat egitea ere ezinbestekoa da.